

Jesus Mari Olaizola Lazkano Txiliku

*Zarautz,
Gipuzkoa (1951)*

Aurkibidea

Biografia



Idazlea, batez ere haur literatura landu du. Zarauzko euskara jaso eta erabili izan du bere zenbait ipuinetan. Baserriko semea, eta etnografian zaletua, ondo ezagutzen ditu gai horiek.

Zintak

ZAR-040

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-08-26
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Txiliku izenaren jatorria

- **Erref:** ZAR-040/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txiliku Zarauzko auzo bat zen, Getariako bidean zegoen auzo txikitxo bat. Garai batean untziolak zeuden, eta garrantzia izan zuen (XVI. mende inguruan). Iturri bat ere bada, Txiliku. Esaten da, gainera, "Zarauztarrak Txilikuko urarekin batailatzen zirela" (egozkorrek direla esateko). Lehen bertako urarekin bataiatzen ziren zarauztarrak. Duela 200 urte inguru erre egin zen, eta bertako jendea Santa Marina kalera joan ziren. Geroztik, hango asko Txiliku izan dira. Zarautzen asko dira.

Transkripzioa

- Hori Zarauzko auzo bat zan. Hor 'e, juxtu Getaiko bidean, hor 'e Zamaiko Zuloa edo deitzen zaion txoko hortan zegoen auzo bat, hola pixkat tonttorrean. Eta, bueno, izan zuen bere garrantzia garai batean ontziolak zeudelako hor. Hor eiten zian ontziak, bueno, barkuak eiten zian. Eta, bueno, ba, ai naiz esaten, ez dakit, e, gutxi gorabehera hamaseigarren mendeko kontua izan daiteke, ezta? Ta, bazan auzo txiki bat, hor 'e bazian halako basarri, basarritxo batzuk eta auzoari Txiliku deitzen zitzaion. Ta bada baita ere iturri bat, e, Txilikuko iturria deitzen zaiona.

- Oaindak bada?

- Oaindak bada. Eta esaten da gaiñera, zarauztarrak egozkorrek dirala esateko, e, hola, eozkorak adierazteko, Txilikuko urarekin bataiatuak gerala, ezta? Baiño, juxtu dago, Parrokian atzekalden, Markesan terrenoetan. Eta lehengo ohitura, o ez dakit, ohitura zan ur hori erabiltzea, e, bataiatzeko, ez? Bataiatzeko garaian.

- [...]

- Hoi da. Ta bueno, ba, hortik etorritako [...] da. Auzo hori erre zan oain dala, ez dakit, igual berrehun bat urte edo horrela erre zen, eta zeak, Markesak eukiko zun, ba, pentsatzen det interesa bere lurraldeetan hartzeko, edo. Ez dakit, behintzat eskeiñi zitun lurak, e, "estramuros" orduan esaten zuten bezela, herritik kanpora. Ta justu, herritik kanpora zian, e, zeako kolean, Santa Maiña kolean. Ta Santa Maiña kale hortan, ba, batzuk egin zuten etxea.

- Txilikutarrak.

- Txilikutar batzuk, eta Txiliku izena zun hark ere. Eta horrea joan zan

bizitza, bizitzea aiton-amonak, nere aiton-amonak joan ziren. Ta nolabait hartu zuten hango tituloa. Eta bueno, geroztik, ba, bueno, ba, familiak izan du. Badaude Zarautzen beste familia batzuk baita 're Txiliku izena dutenak, eta bueno, ba, gehiago dira, ezta? Haiek ez dia Olaizola, dia Aranguren, eta Egibar, eta beste...

- Baiña jatorri berekuak.

- Jatorri, e... Etxe horretakoak, etxeak agintzen du, etxeak du nolabaiteko agindua. Ezizen kontuan etxeak ematen du, edo, e, nortasuna, ez e, ez personak. Orduan, ba, hor mordoska bat gea zarautzarrak Txiliku izena daukatenak, daukagunok.

2. Zarauzko hizkera eta inguruko herrietakoak

- **Erref:** ZAR-040/003
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zarauzko hizkeratik hurbilen Aiakoa dago. Oriokoak baditu berezitasun batzuk (mugatzailea jan egiten dute batzuetan "gozo gozok"), baina zarauzkoaren nahiko antzekoa da. Getariakoa da bereziena, nahiz eta askotan berezitasun hori txikikeriak izan. Hikako aditzean Getariatik Zarautzera badago alderik. Inguruko hizkera guztien ezaugarri handienetakoa, soinuak jateko duten joera nabaria. Aizarnazabal ere oso antzekoa da hizkera aldetik; Getaria baino gehiago.

Transkripzioa

- Eta, ya, euskera kontuetan ta sartuta, e..., Zarauzko euskera ingurukoekin eta, e, pixkat, e, konparatuz eta, antzekuena edo zein izango da, inguruko herrietatik eta? Zure ustez?

- Ez dakit. Nik uste det, nik uste det...

- Edo alderik haundiena daukana edo?

- Nik uste det, hola, hurbillena izan daiteke Aiakoa neurri batean, e, Aiakoa. Getariak bere nortasun oso berezia du, baditu bere gauza, e, markatuak, eta nik uste det Aiako... Oriokoa ere bai. Bueno, Oriok ere baditu bere zera batzuk, ez? Hamen, Zarautzen esaten da, "Orioko karamelok gozo-gozok". Juxtu, mugagabea, edo mugatzailea, mugatzailea ez dutelako erabiltzen, ez? Laburtu egiten dutelako. Bueno, baiña, bueno, nik uste det hor, e, zona hori izango litzakela, Oriyo eta...

- Aiakoak.

- Aiakoak, horrela...

- Eta desberdiñenak? [...].

- Bueno, desberdiñak, ba, Getariak beti izan du hori, ez?, markatzeko hola zenbait gauza. Bueno, askotan txikikeriak izaten dira, e. Ba, Zarautzen ere beti, gauza bat beti esan digutena, "bina-bina", bustidura ez degulako egiten. "Biña-biña" esango da hemen ingurutako herri guztietan, ta pentsatzen det Euskal Herriko leku gehienetan. Baiña hemen, kaso hortan, eta ez dakit beste txiki batzuetan, ez degu bustidurarik egiten, e. Esaten degu, bai, "elkartu giñen" o "bina duro eman zioten", edo "bina-bina etorri giñen". Holako txikikeria hoiek dira, ezta? Baiña bueno, nik uste det, bai, badaudela horretaz aparte batez ere aditzean. Hikako aditzean Getaritik Zarautza badaude, e, halako desberdintasunak. Zarautzen "zitxion" esango da, eta bueno, ba, Getaian berriz eleak erabiltzen dituzte gehiago, ezta?

"Tontoa al hai?". Hor, hor badago elearen... "al haiz" hori esan beharrean, ba, "al hai". Bueno, badaude holako aldaketa batzuk.

- Beraiek, e, gehio jateko...
- Bueno, hamen inguru guztian nik uste hortan habilidade haundia izan degula, e, laburdurak egiteko.
- Urola kosta inguru guzti honetan.
- Bai, bai, asko. Neretzako bat, hola gauza harrigarrietako bat izan da, bai, Zarautzen, bueno, bazian hola, triptongo bezela esaten zian hitz batzuk, ezta? Ta oaindik ez dakit igual nunbaiten esango dira, e. Bat zan "uain", "orain" esateko. Ta bestea zan, "Xuai". Ta oain enteatu gera, kartela jarri dutenean, "Xuai" Zudugarai dala. Orduan, hor dagoen de hori jan degu, "zuu", beste dea 're bai, eta "u-u" "uuai" egin degu azkenean, ba, hor gelditzen zan Zudugarai hori guztia, je ere jan degu, eta.
- [...]
- Zudugarai da Oriyoko gaiña, "Xuai gaiña" guk esaten gendun ta gero, hortik ya nolabaiteko, ez dakit, e... korrezio, hiperkorrezioa egiñaz, "Zubi gaiña" deitzen genion. Ba, pentsa, e, Zudugarai gaiñetik Zubi Gaiña pasa gea.
- Lelengo laburtu, ta gero...
- Gero, ba, han nunbaiten bilatu egin nahi, ez?
- ... moduren baten txokotu, ez?
- Hori da. Nunbaiteko... Bai, edo bueno, hor ba, Aizarnazabal aldea 're badago hor beste bat, e... "Txiua" deitzen zaion leku bat. Eta berez, Txiriboaga da. Orduan hor ere pentsa nolako laburdura egin dan, ezta? Ta hola, basarri eta holako etxe-izan eta hoetan, asko, asko daude horrelako, ba, hori, laburtzeko ohitura hori. Aizarnazabal 'e izan daiteke beste leku bat hola, ba, hizkera aldetikan nahiko, e, berdintsua dana.
- Bai?
- Bai, nik uste baietz.
- Getaia baiño gehio.
- Getaia baiño gehio, bai.
- Bai?
- Bai. Geo gertatzen dana da Zestu aldea [...], hor badator Urola aldeko zera hori, eragiñ hori. Baiña nik uste det Aizarnazabalen ere nahiko berdintsu, e.

3. Zarauzko hizkeraren ezaugarri gutxi batzuk

- **Erref:** ZAR-040/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zarauzko hizkerak baditu zenbait ezaugarri. Gehienbat hitz batzuk (txaparroa, kosta...), Auzo batetik bestera ere aldea izaten da hitz batzuetan.

Transkripzioa

- Eta holan, Zarauzko euskeran beste holan, e, beste ezaugarri batzuk edo, ba, nahiz eta txikikeriyak izan, baiña, entzun eta, "hau zarautztarra da!".
- "Hoi zarautztarra da!" Bueno, bai. Geo hiztegian 'e badaude hitz batzuk, ba, ez dakit, beti esaten ditugunak, ezta? Ba, "txaparroa", esate bateako. Hoi beti aipatzen da.
- "Kosta".

- "Kosta", bai. E... geo badaude formula batzuk, ez dakit, hori erderaren eragiña dan, edo, baiña, e, e, "Fiesta Vascak", Musika Plaza esan beharrean, "Plaza Musika" esaten degu.

- "Plaza Musika" esaten da.

- "Plaza Musika", e. Gero, ez dakit, ez dakit, e, Zarauzko berezia dan, baiña ezizenak esaterakoan oso ohitura handia dago plurala, erderazko plurala, ba, nolabait kamuflatuta erabiltzea, ezta? Ba, ez dakit, e, "Txaketas", eso "Txankletas", edo... ez?, ese hori hor jartzea.

- [...]

- Ez dakit. Hola...

- Eta gero Zarautzen, auzo batetik bestera, ez al dao...

- Auzo batetik bestera aldaketa handiak daude. Pentsa, esate bateako, hor lehen esan degun laburdurarekin, esate baterako, e, gure etxean, "iiñak" ziran, ba, udaberrian etortzen dian hegazti hoiek, ez? "Enara"-tik, e hori oso itxia egin eta i bihurtzen da, eta geo ene erori, eta "iiñak", e. Eta, nik ez dakit, Aia aldea abiatuta, hor hegazti beai "txenada" deitzen zaio. Orduan, ba, "txena"-gatik, o "txenaa", ez?, "txena". Ba, hori, ez?, "enara"-tik, "txenada"-raiño, bueno, barianteak besterik ez dira, baiña, badaude. Gero, ba, batez ere egiten baldin badia holako laburdurak eta gauza bereziak.

4. Getaria eta Orio arrantzaleak; Zarautz ez

- **Erref:** ZAR-040/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Getaria eta Orio arrantzaleak izan dira, eta Zarautz ez horrenbeste. Horrek eragina izan du Zarautzen bizimoduan eta hizkeran. Gainera, aspaldi hasi zen turismoa Zarautzen, eta kanpotarrekin hartu-eman handia izan du beti. Horrek, neurri batean, euskararen ere eragina izan du.

Transkripzioa

- Eta, e, berdintasun eta desberdintasun horretan, e, arrazoi historikoak ere badira? Ze, Zarautzek Oriyokin o Getariakin o...

- Bueno, Oriok eta Getariak izan dute... Bueno, Zarautz beti izan da, e, arrantzaleetatik, bueno, beti egon da arrantza aldetik zerbait, baiño hor daukagun, ba, molla txiki horrekin, ba, ezin zan gauza haundirik zeatu, hortik bizi, ezta? Askoz... Bueno, hor dago beste ezberdintasun bat, esate bateako. Zarauzkoa "molla" da, ta Getaikoa "kaia" da, e, nahiz eta, bueno, azkenian funtzio aldetikan gauza bera da. Baiño batei "muelle"-tik etorri da, eta bestea, ba, ba, ez dakit, "ke" (quai) edo auskalo, frantsesetik edo nondik etorri dan "kaia" hori. Baiña bueno, bai Oriok eta bai Getaiak bazuten leku, arrantzale izatetik halako nortasun berezi bat. Eta bueno, hori, bertako, ba ez dakit, hizkeran eta zenbait... Gero beti egoten dia halako metaforak, erabiltzen diran konparazioak, eta milla gauza, hori nolabait adierazten dutenak, ez? Ez da berdina, lur, e, barruko jendea, edo kanpokoa. Alderdi batetik hori, ta gero, ba, bueno, erregiña honea etortzen hasi zala, pentsa, ez? Isabel bigarrena etortzen zan honea, eta esan nahi det, bueno, aspaldiko garaitik, ba, izan da, Zarautz izan da, kanpoko jendearekin kontakto haundia euki dun herria, ezta? Orduan, ba, zenbaitetan igual [...] ez dakit, señorito xamarrek ere igual izan gea, ezta?

Inguruko herrian, ba, baiño pixkat, ez dakit, holako nahia eo.
- Eta hori euskeran nabaritzen dala pentsatzen dezu?
- Nik uste det neurri, neurri batean beti izan dala halako..., izan litekela, ez dakit zenbateraiño.

5. Zarauzko euskara, Getariakoa eta Orikoa

- **Erref:** ZAR-040/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Orioko euskara eta Getariakoa, zein hurbilago? Elementu gutxi batzuekin egiten dugu alderaketa, eta ez da erraza esatea zein dagoen hurbilago Zarauzko hizkeratik. Getariarekin alde handiena doinuan dago. Zarautzen ere "kantatzen" hitz egiten da, baina Getarian askoz gehiago, doinu bereziagoa dute.

Transkripzioa

- Ni pixkat harritu nauena da, e, badirudi hartueman haundiagoa izan dala Getariakin Oriyokin, Oriyokin baiño. Eta gaiñera, Oriyora juteko mendi bat igo behar da, eta gero erreka igaro, eta... Eta oster, jende guztiak esaten du Oriyokin euskera oso antzekua dala eta Getariakin ezetz.

- Bai, Oriokin askoz errexago da... Bueno, ez dakit zenbateaiño dan hori ere egia, e. Askotan hartzen diran elementuak izaten dira oso txikiak, eta ez dakit benetan hori egia dan, eta azterketa bat egingo bagendu hor, zenbateaiño dan oso desberdiña, ez dakit [...].

- Ta beharbada Getariakin hiru laburdura eta lexikoko bi kontu dira desberdintzen dianak...

- Ez dago holako zerarik. Baiño bai. Gehiago, nik uste det kostalde guztian badago entonazioaren halako zera bat, ezta? E... kantatzen... bueno, ez dakit. Esaten dute kostaldeko jendeak kantatu egiten degula gehiago euskera zeatzerakoan. Eta hor nik uste det bai badagola diferentzi haundiago Oriyo, Oriyora gehiago hurbiltzen geala Getaiarrak duten doiñu hori baiño, e. Beak erabiltzen duten doiñu hori baiño, hurbillago iten zaigu Orikoa, e.

- Beharbada gero barreneko morfologian [...]

- Bai, ez det uste... Ez, ez det uste, ez det uste diferentzi haundirikan eongo litzakela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com